

# Liber'92

JOAN MARI TORREALDAI



**L**IBER'92 delakoa ekainean irekiko da Madrilén. Hamargarren aldiz, 300 erakusle izan omen dira han. 1992an gaudenez, eta Madril kultura europarraren hiriburu denez, Komunitate Europearrak Sorkuntza eta Itzulpen Europearrari eman ohi dizkion Sariak banatuko dira bertan. Noski, of course, ça va de soi, faltaria más.

Liber'92 honen sloganari so, halere, erakusketa hau ez da Europan agortzen. Esanguratsua da sloganak: «Un libro abierto a dos mundos». Esanguratsua eta irekia.

Errealitateak, aldiz, beste modu batera da esanguratsua eta ez batera irekia, bost urte segidan Azoka horretan egoteak iritzia izateko inolako eskubiderik ematen badit behintzat. Telegrama moduan azalduko dut gogoeta pare bat:

— Slogan horrek zer esan nahi duen ez dakit juxtu juxtu. Baina imaginatzen naiz, Europa eta Latinamerika izango dira bi mundu horiek, ezta? Miraririk ez badago aurten, nekez ikusi ahal izango da 'liburu ireki' hori. Liburu espainol itxiaren inpresioa izan dut nik beti Liberen.

— Bi mundutara irekia liburuak? Bi mundutara bakarrik? Redukzionismoa da hori. Mila mundutara irekia dago liburuak, berez. Irakurle adina mundu ditu liburuak, eta ez bi.

Aurten ez naiz, zoritxarrez, han izango. Baina badut nori galdetu bueltakoan.

# Antzerkiaren ateak

JEAN LOUIS DAVANT



**O**PORRAK baditugu naski erakasleek. Ez dira ez beti alfer egoiteko. Aitzitik, izpirituaren hazle

ta pizgarri behar lukete. Piska baten erakasteko, asko ikasi behar baita. Horrela jokatu nahi ukan dut Maiatzeko lehen egunetan. Erromano zaharren atzetik ibili naiz, konpaima tikian, 'Provincia' bataiatu zuten Galiako hego-ekialdean zehar. Han ikusi ditugu bereziki vaision la Romaine-ko aztarnak eta Orange-ko teatro miresgarria.

Hondoko paretak osorik atxiki duen bakarra dugu hau munduan: 37 metra gora, 103 metra luze, botz eta abotsaren hobekienik ekartzeko egina da oro, beharrien belarriek ez dezaten den mendren mikorik ere gal. Izkinak eta kantoinak berak, oihartzunaren hausteko gisan asmatu zituzten. Dena harmonia da antzoki erraldoi horretan.


Paretan hiru ate daude, jokolarien sar-jalgientzat, erdikoa handiena, 'aktur' nagusientzat. Nonbaitik ere, Zuberorako pastoraletan bezala. Niago beraz ez ote zen grekolatinoen tragediatik sortu-gure trajeria, frantsesen misterioetarik baino segurrago. Horretaz baluke zer erran Janes Casenave-Harigile adiskideak.

# HEMEROTEKA

## ABC

### PSOE, Ponce Pilatos

Ezin ukatu gaur egun posible dela arazo terroristaren diagnosi ez hain iluna egitea. Eta bilakaera hori terapia jakin baten birtutei egotzi badakieke —ekintza politziala, nazioarteko elkarlaguntza, indar demokratikoen solidaritatea— ez dago arrazoirik bide hori alde batera utzeko; asko daude, ordea, bertatik ausardiak aurrera egiteko. Horren ondorio da Leitzarango lotsaren inkongruentzia ageria. Izan ere, izuaz baliatzen direnei hain onura garrantzitsua ematea alde batera utzita, HB, EAJ eta PSOEren arteko 'menage a trois' delakoak —oso aldian aldikoa izan arren— indar demokratikoen elkar ulertzen segitzeari mehatxu egin dio. Jaime Mayorrek esan duen bezala: 'PSOE ezin du izan bergizarteraztearen Pilatos, Leitzarango



ALFREDO / DIARIO 16

goan bezala'.

EDITORIALA

## egin Ahultasun nabarmena

Hori erakusteko edozertara ari dira jotzen. Elkartzeko eskubi-

dea kaltetu, askatasun eskubidea eta inmutitate parlamentarioari eraso egin eta pozez ikusi dute gizonaren ehiza Urdulizko haizetan. Baina zail egiten zaie irajaina hori etengabe edukitzea, ez bait dute kontutan izan erakunde baten indarra edo ahultasuna ez dagoela bere ahalmen logistikoen baizik eta sortarazi zuten arazoak konpontzeko itzarropenei eusteko ahalmen politikoen. Indarkeriaren aurka-

ko egungo arduradunek erresistentzia antifrankistaren historia ezagutuko balute, jakingo lukete klandestinitateko talde politikoz guztiek, ETA bame, gorabeherak izan zituztela indar logistikoan, baina gero irauin, indartu edo desagertu egin zirela sostengatzen zituaren argudio politikoen arabera. Seguruenik historia atzera ari da egiten.

JUAN MANUEL DOIAGA

# UZENDARIARI

## Kultura ala dirua errekaratzea?

Azken aldi honetan, mendizaletasuna kirol gisa zer izan behar den hausnartzean, sarritan galdetzen diot neure buruari ia ez ote gabiltzan jendearen gehiengoak pentsatzen duenaren iparra galtzen.

Argituko dut goian esandakoa: hasteko esan behar dut espedizio banaka batzutan parte hartu dudala, baina inoiz ez nuela parte hartu diru publikoaren laguntza zuen espedizio batean aurten arte, eta espedizio-tik itzultzean, behin istorio batzuetan ondoren, barrenaraino heldu zaizkit entzunak eta moralki mindua nago, izan ere, nere uestez gure gizarteak baditu makina bat behar mendi batera edo bestera igotzea baino lehenagokoak direnak, are gehiago askorentzat mendi batzuetatik ezertu ez guri esaten dietenean eta, uestek ueste, oporrak bakoitzaren poltsikotik ordaindu behar direla ueste dutenean.

Zuetariko batzuk zeuon buruari galdetuko diozue ea zer esanahi daukan, zer adierazten nahi duen, Euskal Herriarentzat mendi handi bat igotzeko. Galdera sakona da nerretzat. Nere iritziz duela zenbait urte munduan zehar gure herriaren esistentziaren berri eman zezakeen zerbait izan zite-

keen, baina, hala ere, kultura aldetik begiratu ez emaitza laburra du, 'mito' pertsonalak sortzea den negatiboa kontutan hartzen badugu.

Gaur egun esan dezaket, mendiaren inguruko mundutxo hori barritik ezagutzen, diru publikorik ezintza haueetan ez inbertitzeko adinako kiratsa dariola. Tontor baten gainean ezarritako ikurrin eta titular puntualetik bizitzea baino garrantzitsuagoak dira daukagun langabetu kopurua eta ase gabeko behar kulturalak.

Esaten nabilenarekin ez nago espedizio komertzialen aurka, ondo iruditzen zait eta publikitateak esponsor lanak egitea, baina horren alboan bai ueste dudala denon diruarekin zintzoagoak izan behar dugula, zeren eta gehienetan ezertarako balio ez izateaz gain beti berdinekin eramatean bait dute diru publiko hori.

Badakit lerro hauek min egingo dietela hainbat mendizale zintzori baina idazterara ausartu banaiz alpinismoak, 'eliteko' deitutako horrek, duen usain txarragatik da. Ziur naiz ahalagin pixka batekin beste arlo positiboagoak jorra daitezkeela.

Ez ditzagun butinezko mitoak sor!

JOSEBA EGIBAR Bergara (Gipuzkoa)

## Euskararen esplotazioa

Hizkuntzaren funtzioa, gizakion komunikazioa erraztea dela esan genezake, orokorrean. Baina, Euskal Herriari kokatuko bagina, hizkuntzaren-euskararen funtzioa pixka bat aldrebestu egin dela esango nuke.

Hau da, euskaldunen hizkuntza den euskarak jadanik ez duela euskaldunen komunikazioa helburu, politikariaren txapelketa tresna bilakatu dela esan genezake.

Ez al da lotsagarria, euskara jasaten ari den esplotazioa? azken finean, ez al da «euskera, euskaldun egiten gaituena?».

Ez dut ueste zalantzan jartzekoak denik, euskaldunen ezagueri funtzioa hau izan bait da betidanik, hots, geure hizkuntza.

Beraz, has gaituzten geure buruari bete-behar bat gehiago jartzten eta geure hizkuntzaren indartze prozesuari bultzadaxo bat ematen, eta ez diezagun utzi euskaraz tutik ez dakituen euskararen ibilbidea erabakitzen, gu bait gara euskarari garaipena lortzen lagunduko diogun bakarrik.

AINHOA LARRAÑAGA Bergara (Gipuzkoa)


# GAIA JARRITA



## Escrivaren beatifikazioa

Elkartu behar dira Erroman makina bat bikario ta Opuseko gehienak ere hortara doaz propio nahaste ederra sortu digute Escriba dela medio Aita Santuak aldarretako bide ematen badio pobrezia batoak ez du ezertarako balio (Bis).

MANU GOMEZ



Batzorde Paretidea: 72564 E / Lege Gordailua: ES 800/90

<b>Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:</b> MARTIN UGALDE
<b>Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:</b> JOAN MARI TORREALDAI
<b>Kontseilari Ordezkaria:</b> JOXE MIEL ZUMALABE
<b>Gerentea:</b> FERMIN LAZKANO
<b>Zuzendaria:</b> PELLO ZUBIRIA
<b>Zuzendariordeak:</b> LUZIEEN ETXEZAHARRETA, INAKI URIA
<b>Sustapena:</b> NEREA AZURMENDI
<b>Publikitateak:</b> KORNELIO ROTETA
<b>HELBIDEAK</b>
<b>Erredakzio eta Tailerra:</b> ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
<b>Egiltza soziala, Publikitate eta Administrazioa:</b> Antso Jakituna, 16-1, / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
<b>Arabak:</b> San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
<b>Nafarroa:</b> Iraixte Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
<b>Bizkaia:</b> Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
<b>Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa:</b> 2. Galuperia kaita / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11